

OTO'REN MELOIAK

Oraingo oitura barria, munduan zear, baita Euskalerrian be, naiko zaarra: langabezia arintzeko soro-zatitxo bat emon langabetueri.

Oto'ri be lur-zati bat emon eutsoen Erriberan eta Europa'ko merkataritzarako emoitz onak dirala-eta meloiak ereintzen ekin dau gure gizonak.

Lurra an, Jainkoak dakien baztar batean, emon eutsoen eta solo-erdian txabolatxo bat jaso eban bertan jan eta aldietan lo be egiteko.

* * *

Udazken oparoa gertatu zan eta meloiak ugari bezin ederrak eldu ziran. Oto naiko buru-soil dabil aspalditxo onetan; urteak be eta, jakina, urteekin batera joan oi dira buruko txima-uleak. Baiña, berak esaten dauana:

—Sekula ikusi dok asto buru-soillik?

Egun batez Sakana'ko Urlia jaunak onela eraso eutson:

—Eta, buru-soil ez dan txarririk..?

* * *

Oto jaun prestuari ori esan? Eta, gaiñera Etxarriko batek..? Lazkao'ko Estraposilbeneko txarridunak esan ba' eben, gaitz erdi, Gipuzkoa-aldean txarriak ez dauke ule-rik; baiña, Etxarriko mendietan txarri uledunak be ikusi oi dira...

Dana dala, Oto asarre jarri jakun:

—Ni lako gizona txarri batekin konparatu..!

—Zuk besteok astoakin konparatu gozak... Eta, kito! Eztabaidea bertan amaitu zan.

* * *

Meloiak batzeko garaia zalarik, joan da Oto Erriberara. Banan banako meloiak agertzen ziran soloan. Maitasunez jaso eta txabolan gorde ebazan kurioso-kurioso eta begirunez. Artan ari dala gauak arrapatu eban eta txabolan lo egitea erabaki. Etxun orduko, loak artu eban...

“Egunez ikusi eta gaeuz eroan” esaten dabe nik daki-ten bi errieri buruz: alan egiten ei dabe bertakoak. Areik bakarrik ez. Gau artan etorri zanak, meloiak ikusi ebazan egunez, eta sorgiñak erratzeetan urteten daben orduan, Oto'ren txabolan sartu lapurretan gaeuz.

Merke eroatekotan, merkeago ezin, ederrenak aukeratu. Artan ebillen gure lapurra illunpeetan, oneri eldu, ateri ikutu, ederrenen billa. Ikutuz-ikutuz Oto'ren buru-soillarekin topo egin dau:

—Au dok ederrena! Esan eban berekiko.

Ori esanarekin batera meloia jasotzen asi danean, orduantxe ebillen Oto amesetan: eizera joan eta kokodrillo batek, ao zabalik, eldu eutson burutik, Afrikan.

Jo dau garraxia birikietako indar guztiaz.

Lapurra, meloia garraxika entzun ebanean, zerraldo jausi zan lurrera kordarik gabe. Otok krisaillua piztu ebanean, kokodriloaren orde, gizon bat topau eban bere ega-lean, konorterik gabe.

* * *

Otok ez zekien zer pentsa eta aurpegira ura bota, eutsoanean orduan esnatu zan lapurra zearo urduri. Larritasunean tabakoak bear izaten dabe zenbaitzuk eta arek be bai.

—Tabakorik ba'dozu? Esan eutson apalik eta bildurti eskale antzeko arek.

—Bai, ba'dot.

—Emango daustazu apurtxo bat?

—Bai, emango dautzu.

Bere boltxa tximurretik atera eban tabako apurtxu bat eta emon eutson.

—Paperik ba'dozu?

—Bai, badot. Txalekoaren boltxikotik atera eta emon eutson Zig-zag papeltxua.

—Surik ba'dozu?

—Sua?

—Bai, sua.

Otok asarre ekin eutson:

—Lenengo tabakoa, gero papela eta orain sua? Ezpanak nai dozuz, koino, erretzeko espanak..? Zer kristau-jenero zara ba?

Alan be emon eutsozan meloi bi, ez bait zan konturatu ze arraiotara etorri zan bere txabolarra. Izan be Otok burua gogorra, baiña biotza biguna.

ARRINDA'tar ANES